

OZ-2021-032
B052-2021-00001
EE-2021-00089

**LARRABETZUKO UDALETXEA ERABERRITZEKO OBRAREN OBRA-PROIEKTUA
IDAZTEKO ETA ZUZENDARITZA FAKULTATIBOKO ZERBITZURAKO OHIKO
PROZEDURA IREKIAREN BIDEZKO KONTRATAZIO-PROZESUA ARAUTUKO DUTEN
BALDINTZA ADMINISTRATIBO ZEHATZEN AGIRIAREN KARATULA**

A.- Kontratuaren objektua.

Kontratu honen xedea da Larrabetzuko udaletxea berritzeko obra-proiektua (egikaritze-proiektua) idaztea eta obra horien zuzendaritza fakultatiboa egitea. Obra gauzatzeko proiektuarekin batera, eraikinaren eta haren espazioen barneko banaketa eta dekoraziorako proiektua ere egingo da.

Administrazio-klausula zehatzen agiri honetan, baldintza teknikoen agirian eta esleipendunak egindako eskaintzan xedatutakoaren arabera emango da zerbitzua. Esleipendunak ezin izango ditu inola ere murriztu agiri honetan eta eranskinetan adierazitako betebeharrak. Aipatutako hiru dokumentuek kontratu-izaera dute.

Kontratuari honako hauek dagozkio: 71000000-8 kodea ("arkitektura, eraikuntza, ingeniariaritza eta ikuskaritza zerbitzuak"), 71200000-0 kodea ("arkitektura eta zerbitzu lotuak") eta 71221000-3 kodea ("eraikinetarako arkitektura zerbitzuak"), Europako Batzordearen 2007ko azaroaren 28ko 213/2008 (EE) Erregelamenduan jasotako CPV nomenklaturaren arabera. Erregelamendu horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2195/2002 (EE) Erregelamendua, kontratu publikoen hiztegi komuna onartzen duena, eta 2004/2004 Zuzentarauak aldatzen ditu.

B.- Zerbitzu sustatzailea

Larrabetzuko Udala.

C.- Kontratazio organoa eta zuzendaritza.

Alkatetza

Askatasuna Enparantza, 1 48195 Larrabetzu (BIZKAIA)

Kontratazio mahaiaren osaketa.

Presidentea	Iñigo Gaztelu Bilbao, Udaleko Alkate-Presidentea.
Bokala 1	Ane Ituiño Pérez, AOT Udaleko funtzionarioa
Bokala 2	Ortzi de la Quintana Ibáñez, Udaleko Idazkari Kontu-hartzailea.
Bokala 3	Izaskun Etxebarria Vadillo, Udaleko aparejadorea, funtzionarioa
Idazkaritza	Nerea Uriarte Iza, Udaleko funtzionarioa

D.- Lizitazio-oinarriaren aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsia.

	IMPORTE	IVA	TOTAL
Presup. Base de Licitación	75.435,12 €	15.841,37 €	91.276,49 €
Valor Estimado del Contrato	75.435,12 €		

- Lizitazio-oinarriaren aurrekontua

Kontratuaren lizitazioaren oinarritzko aurrekontua HIRUROGEITA HAMABOST MILA LAUREHUN ETA HOGEITA HAMABOST EURO ETA HAMABI ZENTIMOKOA DA (75.435,12 €). Zenbateko horretatik kanpo dago dagokion BEZa. Honela banakatzen da:

Lizitazioaren prezioa (zerga-oinarria)	75.435,12 €
BEZ 21%	15.841,37 €
TOTAL	91.276,49 EUROS

- Kontratuaren balio zenbatetsia

Kontratuaren balio zenbatetsia, luzapenak eta aldaketak barne, BEZa kenduta, HIRUROGEITA HAMABOST MILA LAUREHUN ETA HOGEITA HAMABOST EURO ETA HAMABI ZENTIMOKOA da (75.435,12 €).

Prezioa (zerga-oinarria)	75.435,12 €
luzapena	ez

204. art-ko aldaketak	ez
TOTAL	75.435,12 €

Proposamen ekonomikoa BAZPen II. Eranskinean zehaztutakoaren arabera aurkeztuko da. Proposamen ekonomikoak eurotan egingo dira eta prezioak bi dezimalekin adieraziko dira. Proposamenean zehaztu beharko da, partida independente bezala, jasan beharko duen Balio Erantsiaren Zergaren zenbatekoa.

E.- Kontsignazioa aurrekontua

Kontratu hau modu aurreratuan izapidetuko da 117.2 artikulua eta 3.2 xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera eta 2013ko urriaren 18ko IGAEn instrukzioarekin bat eginez. Horregatik 2021eko ekitaldirako aurrekontuan dagokion aurrekontuko partida agertuko da. Kontratua esleitu ondoren aurrekontua indarrean egongo ez balitz, kontratua finantzatu behar duten baliabideak kontsolidatu arte etenda geratuko da esleipena. Era berean, Kontratazio organoak hitzematzen du nahikoa kreditu erreserbatuko duela lizitazio honen bitartez konprometitutako etorkizuneko ekitaldietarako. Hornidura kontratu honen finantziazioaren %100 udalekoa izango da.

F.- Urteak

2021 urtea

G.- Izapidetza

Arrunta

H.- Prozedura eta esleipen forma

Irizpide anitzeko prozedura ireki arrunta

I.- Esleipen elektronikoko sistema

Derrigorrezko erabilera

J.- Esleipen irizpideak

Kontratua esleitzeko oinarri gisa erabili behar diren eskaintzak baloratzeko irizpideak honako hauek dira, garrantziaren eta esleitzen zaien haztapenaren arabera handienetik txikienera zerrendatuta:

1. Automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideak: 60 puntu.

- Proposamen ekonomikoa: 60 puntu.

Eskaintza ekonomikoa atxikitako formularen arabera baloratuko da, eta gehieneko puntuazioa (60 puntu) emango dio eskaintza ekonomiko txikienari, eta gutxieneko puntuazioa (0 puntu) esleipen-aurrekontuari.

P.L: esleipen aurrekontua

O.E.M.B.: neurriz kanpoko eskaintza ekonomiko baxuena

O.E.x: Xren eskaintza ekonomikoa

V.max: gehienezko balorazioa

VX: x eskaintzaren balorazioa

$$VX = V. \text{ Max } x [(PL - Oex)/(PL - OEMB)]$$

Neurritz kanpokoak izango dira esleipen-oinarriaren prezioaren ehuneko 15 unitatetik gorako beherakada dutenak.

Aurkezteko modua: pleguaren II. Eranskinaren eredia.

Enpresa lizitatzailleen artean berdinketa gertatuz gero, hurrengo enpresen proposamenek lehentasuna izango dute eskaintza egiteko unean (lehentasun-ordenaren arabera).

A) Desgaitasun-egoeran edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden langileen ehuneko handiena duten enpresak; eta berdintasun-egoeran dauden eta gaitasunik ez duten langile finko gehien dituztenak.

B) Enpresa horietan aldi baterako kontratu gutxien dituenak.

C) Enpresa horietako bakoitzeko plantillan emakumeen ehuneko handiagoa izatea.

D) Aurreko irizpideak aplikatu ondoren berdinketak jarraitzen badu, zozketa egingo da.

2. Automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideak: gehienez 40 puntu.

Proposamen teknikoak dokumentazio hau aurkeztu beharko du: orientazio-aurreproiektutik abiatuta eta BTPn adierazitako azalpenetatik abiatuta, Udalaren inguruko proiektu-proposamena, honako hauek jasoko dituenak:

1.- kokapen-plano bat.

- 2.- kanpoko fatxaden planoak.
- 3.- eraikinaren barruko erabilera-planoak, solairuen arabera.
- 4.- Proiektu-proposamenaren idatzizko azalpena.

Proposamen teknikoak ezaugarri hauek izango ditu:

- A) .- aurreikusitako espazioen erabilera optimizatzeko eta handitzeko proposamena: 15 puntu.
- B) Hiri-parkean ezartzea eta irisgarritasun-baldintzak proposatzea, hirigune historikoan eragin txikia izanik. 10 puntu.
- C) BTPrekin dagoen orientazio-aurreproiektuak udal-zerbitzuei eta eskatutako instalazioei dagokienez sor ditzakeen arazoak eta kalteak identifikatzea. Horiek konpontzeko proposamenak ere egin beharko dira. 10 puntu.
- D) Eraikinaren 3Dko infografiak aurkeztea, barnean hartutako espazioen kokapena eta eraikinaren kokapena adieraziz. 5 puntu.

Atal honetan proposamenaren kalitatea hartuko da kontuan, eta bereziki baloratuko dira hura egiteko metodologia eta udalerrian dauden desberdintasun-egoerak zuzentzeko proposatutako neurriak.

ERA AUTOMATIKOAN ZENBATU EZINEZKO IRIZPIDEEN BALORAZIOAN LORTU BEHARREKO GUTXIENEZKO PUNTUAK

SPKLren 146.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, balorazio orokorrean onartuak izateko, pertsona eta enpresa lizitatzailerei eskatu egingo zaie era automatikoan edo formula bidez zenbatu ezinezko irizpideetan gutxieneko puntuazioa eskuratzea; eta beraz, Kontratazio mahaiak ez ditu kontutan hartuko irizpide subjektiboen atalean gutxienez 20 puntu lortzen ez dituen pertsona edo enpresa lizitatzaileren proposamenak.

K. Behin-behineko bermea

Ez da eskatuko.

L. Behin-betiko bermea

Esleipen zenbatekoaren %5, BEZ kenduta.

LL. Prezioen berrikusapena

Ez dagokio

M. Aldaerak baimentzea

SPKLren 205. artikuluari lotuta.

N. Betearazpen epea/entrega

Obra proiektua aurkezteko epea sei (6) hilabetekoa izango da, kontratua formalizatzen den hurrengo lan-egunetik aurrera zenbatuta. Obraren zuzendaritza fakultatiboa obra esleitu eta zuinketaren konprobazio aktatik hasita obra amaierako ziurtagirirarte iraungo du.

Ñ. Luzapen aukera

Ez dago

O. Betearazpen lekua

Larrabetzuko udalerrian. Baldintza teknikoen pleguan eta horrekin batera doan dokumentazioan jasotzen den udal jabaripeko eraikina.

P. Bermea eta jasotzeko epea.

Bemeraren epea 2 hilebetekoa izango da, haren jasotze formaletik aurrera.

Q. Proposamenak aurkezteko epea

Iragarkia kontratazioaren profilean argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita eta 2021eko jorrailaren 30erarte, arratsaldeko 14:00ak arte.

R. Proposamenak aurkezteko lekua.

Larrabetzuko Udaleko lizitazio plataforma.

Proposamenak aurkezteko forma. Hiru gutunazal elektroniko aurkeztuko dira.

A GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- Erantzukizunpeko deklarazioa –aurretiazko irizpideak.

B GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- Automatikoki baloratu ezin daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa –aurretiazko ebaluaketa.

C GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- Automatikoki baloratu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa –ondorengo ebaluaketa-.

Gutun-azal bakoitzaren barnean adierazi beharko da, orrialde independente batean, dauden dokumentuen zenbakizko erlazio bat (aurkibidea)

Proposamenen edukia

A GUTUN-AZALA. ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOA. Gutun-azal honek hurrengo dokumentazioa jasoko du:

1. BAZPen I. eranskinarekin bat eginez kontratatzeko baldintzak bete egiten direnaren erantzukizunpeko deklarazioa.

Plegu honek eta legeak exigitzen dituen baldintzak bete diren ikusteko unea proposamenak aurkezteko azken eguna izango da.

B GUTUN-AZALA: AUTOMATIKOKI ZENBATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK

- Memoria teknikoa, baldintza teknikoen agirian ezarritako alderdi guztiak jasotzen dituena.

C GUTUN-AZALA: ERA AUTOMATIKOAN ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

C gutun-azalaren barruan sartuko da proposamen ekonomikoa II. Eranksinean xedatutakoarekin bat eginda.

S. Publizitate gastuak

Pertsona edo enpresa kontratistaren kontura izango dira Aldizkari Ofizialetan, zein egunkarietan edota bestelako hedabideetan lizitazioaren publikazioaren ondorioz sor daitezkeen gastuak, 300 euroko gehienezko zenbatekoa arte.

T. Gaitasuna, derrigorrezko enpresari edo profesional gaikuntza eta kaudimena. (Dokumentazio administratiboa).

T1. Gaitasuna.

BAZPen ezarritakoaren arabera.

T2. Kaudimen ekonomikoa eta finantziarioa, teknikoa eta profesionala.

1.- Kaudimen ekonomikoa eta finantzieroa honako baliabide baten edo batzuen bidez egiaztatu ahalko da:

- Kontratuak aipatzen duen esparruko urteko negozio-bolumena, enpresaburuaren eraketa- edo jarduera-hasieraren eta eskaintzak aurkeztearen daten arabera erabilgarri dauden azken hiruren arteko ekitaldirik onenari dagokionez, kontratuaren urteko batez besteko balioaren behin eta erdi izan beharko da gutxienez, hau da: 90.000,00 euro. Urteko negozio-bolumena Merkataritza Erregistroan onartu eta gordailututako urteko kontuen bidez egiaztatuko da. Enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago, eta hala ez bada, enpresaburua egon behar duen erregistro ofizialean gordailututakoek. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentarioen eta urteko kontuen liburuaren bidez egiaztatuko dute urteko negozio-bolumena.
- Lanbide-arriskuengatiko erantzukizun zibileko aseguru baten egiaztagiria, 300.000,00 eurokoa.

2.- Kaudimen tekniko edo profesionala:

- Egindako prestazio nagusien zerrenda, azken hiru urteetan kontratuaren xede izan direnen izaera berekoak edo antzekoak, horien zenbatekoa, data eta hartzaile publiko edo pribatua adierazita. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, emandako zerbitzuak organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira; hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez, edo, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez, prestazioa egin dela egiaztatzen duten enpresaburuaren esku dauden agiriekin batera; agiri horiek, hala badagokio, zuzenean jakinaraziko dizkio agintaritza eskudunak kontratazio-organoari.
- Kontratuaren exekuzioa osatuko duten langile teknikoak zein izango diren, titulu akademikoak eta profesionalak jasoz, bai enpresariarenak, bai zuzendarienak, bai exekuzioaren arduradunarenak.

U. Kontratazio profila

www.Larrabetzu.eus

V. Bestelako zehaztasunak

Esleipendunak hartuko du bere gain kontratua, SPKLren 197. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta agiri honetan jasotako klausulak eta kontratuaren oinarri diren baldintza

teknikoak zorrotz betez gauzatuko da, Udalaren zuzendaritzapean, gainbegiratuta eta kontrolatuta. Udalak idatziz zein ahoz baliatuko ditu ahalmen horiek.

Esleipendunak harremanetarako arduradun bat izendatu beharko du zerbitzua emateari eta gorabehereri buruzko guztirako. Kontratuaren xede diren zerbitzuak gauzatzen diren bitartean, arduradunak Udalarekin behar diren bilerak egingo ditu kontratua behar bezala garatzen dela bermatzeko.

Kontratua exekutatzeko, kontratuaren klausulak eta administrazioak kontratistari kontratua interpretatzeko emandako jarraibideak bete beharko dira.

Kontratistaren kontura izango dira gastu eta zergak, Aldizkari Ofizialetako, Egunkari Ofizialetako edo beste edozein komunikabidetako iragarkiak, kontratuaren eskritura publikoa eta horniduraren xede diren ondasunak behar bezala gauatzeko eta entregatzeko beharrezko lizentziak eta baimenak.

Era berean, enpresak kontratua gauatzeko egin behar dituen gastu guztiak ordaindu beharko ditu, hala nola gastu orokorrak, finantzarioak, aseguruak, garraioak eta joan-etorriak, materialak, instalazioak, bere kargura dituen langileen ordainsariak, egiaztapen-eta entsegu-gastuak, tasak eta era guztietako zergak, BEZa, jarduera gauzatzeagatik legokiokeen zerga eta kontratua indarrean dagoen bitartean gauzatzearen ondoriozko beste edozein.

Lizitatzailerek egiten dituzten esleipen-eskaintzak eta -proposamenak, ondorio guztietarako, hainbat kontzeptu kargatzen dituzten edozein motatako zergetan sartuta daudela ulertuko da.

Hala ere, eskaintza ekonomikoan aparteko partida gisa adieraziko da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) zenbatekoa. Oinarrizko kontratu-betebeharrak.

Lan-kontratuko langileak: enpresa edo pertsona kontratistaren betebeharrak, Gizarte Segurantzari langileen altari eta bajari buruzkoak, eta soldaten eta kotizazioen ordainketari buruzkoak, lanbide-kategoriaren eta hitzarmen kolektiboaren arabera.

Beste batzuk: zerbitzua emateko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzea.

Pertsona edo enpresa kontratistaren laneko betebeharrak.

Gizarte-arlokoak: kontratistak lan-arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du gizarte-segurantzari, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeari eta lan-arriskuen

prebentzioari dagokienez, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean eta Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduan (urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren bidez onartua) xedatutakoaren arabera, bai eta kontratua gauzatzean aldarrikatzen direnen arabera ere.

Ordaintzeko modua.

Prezioa AKPPan zehaztutakoaren arabera ordainduko da, banku-transferentzia bidez. Prezioaren% 5 kontratua formalizatzen denean ordainduko da,% 65 gehiago exekuzio-proiektua entregatzen denean, eta gainerako% 30a obra egiten amaitzen denean.

Administrazioak hogeita hamar eguneko epean ordaindu beharko du prezioa, emandako zerbitzu-kontratuan xedatutakoarekin bat datorrela egiaztatzen duen dokumentazioa onartzen den egunetik zenbatzen hasita, eta, berandutuz gero, epe horretatik aurrera, berandutze-interesak eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako kobrantza-kostuen kalte-ordaina ordaindu beharko dizkio kontratistari. Operazioetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen ditu.

Interesen sortzapen-epea zenbatzeko, kontratistak faktura dagokion administrazio-erregistroan aurkezteko betebeharra bete beharko du, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan, salgaiak entregatu eta hogeita hamar eguneko epean.

210. artikuluko 4. paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, hornidura entregatu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan onartu beharko ditu Administrazioak kontratuan xedatutakoarekin bat datoze la egiaztatzen duten agiriak.

Nolanahi ere, faktura elektronikoa dagokion administrazio-erregistroan aurkezteko hogeita hamar eguneko epea betetzen ez badu kontratistak, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, interesen sortzapena ez da hasiko faktura behar bezala aurkeztu eta hogeita hamar egun igaro arte, eta Administrazioak ez du onesp enik eman, hala badagokio, eta dagokion ordainketa egin beharko du.

Pertsona edo enpresa kontratistak formatu elektronikoa erabili behar du fakturak jaulki eta egiteko. Faktura elektronikoak Facturae, 3.2 dokumentuan ezarritako formatura egokituko dira, eta baliozkotutako ziurtagiri batean oinarritutako sinadura elektroniko aurreratu batekin sinatuko dira.

Pertsona edo enpresa kontratistak faktura elektronikoa aurkeztuko du faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorraren bidez. Puntu hori Larrabetzuko Udalaren webgunean dago.

Faktura organo hartzaileari behar bezala jaulki ahal izateko, honako hau adieraziko da:

Kontabilitate publikoko organo eskuduna: esku-hartzea.

Kontratazio organoa: Alkatetza

Fakturaren organo hartzailea: idazkaritza-kontu-hartzailetza.

Kontratua suntsiarazteko arrazoi zehatzak dira:

- Eskaintzan zehaztutako baldintzak eta kontratuaren xede den prestazioa ez betetzea edo oker betetzea.
- Baldintza-agirietan oinarritzat jotzen diren kontratu-betebeharrak ez betetzea.

Lanen jabetza.

Kontratua gauzatzean egiten diren ikerketa eta dokumentu guztiak Larrabetzuko Udalarenak izango dira. Enpresak kopiatu, argitaratu eta zabaldu ahal izango du, osorik edo zati batean, lanen esleipendun den pertsonak edo enpresak aurkaratzeko eskubiderik izan gabe.

Pertsona edo enpresa esleipendunak ezin izango du, ez osorik ez zati batean, ez zuzenean, ez zeharka, kontratua gauzatzearen ondorioz egindako ikerketa eta dokumentazioa erabili edo zabaldu kontratazio-organoaren berariazko baimenik gabe.

Kontratuaren xedea jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideak babestutako produktu baten egilea denean, enpresak edo pertsonak

Larrabetzun, 2021eko martiaren 11an.